

HIZKUNTZA NAHASKETAK

Deskribapena: Kike, Garbiñe Bereziartuarekin ateratzen da Azpeitiko kale batean elkarrizketan lehenengo.

Kike: “Garbiñe, hegoaldean euskañola, iparraldean frantseuskara, esan liteke horiek direla gaur egungo gazteen hizkerak?”

Garbiñe: “Baietz erantzutea horri gorra iten zait, ez? Horrek dauken konnotazio negatibo horregatik edo baino galderie baldin bada ia gaztiekin beran euskal jardun horren barruan gaztelania ta frantsesan eraginikan edo antzematen al dan diskurtso hortan, ezinbestin baietz erantzun ber zaio eta ez gaztik bakarrikan e? nik uste guk bezelako gaztiekin ere erabiltzen degula, ez?”

Kike: “Eta hori ez da bakarrik euskeraren kasua, ezta?”

Garbiñe: “Keba, keba, keba hori hizkuntza bat baino gehio ukipenien dauden tokietan eta gaur egun, munduen hori, osea gutxi izango dira hizkuntza bakarra dagoneko tokiek, hori oso ohikue da.”

Kike: “Gazteek, sare sozialetan zer nolako hizkuntza darabilten aztertu duzu; esan liteke inoiz baino gehiago idazten dela?”

Garbiñe: “Komunikazio bide berriek sortu diren hontan, ba, komunikatzeko modu berriek ere sortzen ari dire, ez? Eta nik ustet hor, ba bai, askoz gehio idazten dala esango nuke nik. Gaztiekin eta guk ebai, erabili nahi dabena da ba modu informalin, kalien, lagunekin erabiltzen den hizkuntza hori, ez? Orduan, segun ze ingurune ta kuazean eta segun ze ohitura daukatzun zuk kalin lagunekin eta iteko ba, azkenin sare sozialetan iten dan, erabiltzen dan hizkuntza horren islada besterik ez da, ez?”

Deskribapena: Sorraluzeko kalean bertako hiru gazteekin solasean agertzen da orain Kike.

Kike: “Erabiltzen duzuen euskeran somatzen duzue hutsunerik?”

Lehenengo gaztea: “Bai. Eztabaidetan etaba, beti erderara pasatzen gara.”

Bigarren gaztea: “Ez dakit, erderaz askoz hobeto espresatzen gara, ze hitzak eta falta jakuk euskeraz.”

Hirugarren gaztea: “Ez dauka tokixa lagun batzuen artian ta baina saiatzen gara beti hitz egiten.”

Bigarren gaztea: “Igual zuk euskeraz in berba eta berak erderaz erantzutia zuri.”

Hirugarren gaztea: “Ba ez da erreza.”

Kike: “Ba mila esker!”

Hiru gazteak: “Ez horregatik! Zuri. Agur!”

Deskribapena: Donibane Lohizunen Jokin Etcheverriarekin hizketan ageri da azkenik Kike.

Kike: “Jokin, Bizkaian ematen duzu denbora erdia, beste denbora erdia hemen, e, euskanola zer den ezagutzen duzu...”

Jokin: “Bai, ondo ezagutzen dut.2

Kike: “Eta hemen bada horrelakorik?”

Jokin: “Bizkaian entzuten da esaldi bat euskeraz, esaldi bat espainolez, ez? Hemen uste dut euskeraz hitz egiten denean, euskeraz hitz egiten da eta hiztegia ez baldin bada, adibidez, ez dakigu esaten hitz bat orduan hor frantsesez botatuko dugu baina erakutsiz hiztegiaren arazo bat, ez, dela? Baina esaten duzuna gehiago da bizirik, alderantziz, esan nahi dut frantsesez. Hemen adibidez Donibanen, frantsesez hitz egiten denean, badira hitz batzuk euskeraz botatzen direnak.”

Kike: “A bai?”

Jokin: “Neskalaguna esaten da “puttü”.”

Kike: ““Puttü”.”

Jokin: “Esango da “Alors, t´a trouvé la “puttü”? Hori da hemen tipikoa, adibidez paristar bat honat etortzen baldin bada eta hori entzuten baldin badu ez du ulertuko, ez?”

Kike: “Eta beste adibide batzuk edo?”

Jokin: “Ordun rugbilariak burrukatzeko esango da ostia bat, ez? Ostia bat esango da “pattak”, burruka “la pattak”.”

Kike: “Esango zenuke beraz, hemen hizkuntzak gehiago bereizten direla eta hegoaldean gehiago nahasten direla.”

Jokin: “Hori da.”